

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA  
VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

LII: 1-2 (2018)

*Studia Philologica et Diachronica  
in honorem Joakin Gorrotxategi*

*Vasconica et Aquitanica*

Joseba A. Lakarra - Blanca Urgell  
(arg. / eds.)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Aurkibidea / Summary / Índice

Sarrera . . . . .	xi
Joakin Gorrotxategiren bibliografia . . . . .	xiii
JOSÉ ANDRÉS ALONSO DE LA FUENTE, Counting days in Hokkaidō Ainu. Some thoughts on internal reconstruction and etymology . . . . .	1
BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ, SENI eta LOHI (sudurkari galduaren bila) / <i>SENI &amp; LOHI (in search of lost nasal)</i> . . . . .	19
IÑIGO ARTEATX eta XABIER ARTIAGOITIA, Eguraldiaren gramatika euskaraz eta Gramatikaren Teoria / <i>Meteorological expressions in Basque grammar and the Theory of Grammar</i> . . . . .	33
AGUSTÍN AZKARATE, Reflexiones sobre arqueología, lingüística e iglesias rupestres de época tardoantigua / <i>Considerations on archaeology, linguistics and rock churches of Late Antiquity</i> . . . . .	61
GIDOR BILBAO TELLETXEA, Lukrezio, Ibinagabeitiak euskaratua / <i>Lucretius, translated into Basque by A. Ibinagabeitia</i> . . . . .	79
IÑAKI CAMINO, Hizkuntza-ospearen eta eragin lektalaren zirurikak Ipar Euskal Herriko jende, mintzo eta idazkietan / <i>Language-prestige and lectal influence in the people, speech and writings of the Northern Basque Country</i> . . . . .	93
LYLE CAMPBELL, How many language families are there in the world? . . . . .	133
KARLOS CID ABASOLO, Omen partikularen erabilera eta gaztelaniazko ordainak: Anjel Lertxundiren kasua / <i>The use of the omen particle and its equivalents in Spanish: The case of Anjel Lertxundi</i> . . . . .	153
DENIS CREISSELS, Transitivity prominence in typological perspective: the case of Basque . . . . .	175
ANDER EGURTZEGI, Herskarien ustezko ahoskabetasun asimilazioa eta euskal herskari zaharren gauzatzea / <i>The alleged voicelessness assimilation and the realization of Old Basque stops</i> . . . . .	189
JABIER ETXAGIBEL, XIX. mendean Harizmendiren <i>Ama Virginaren Hirur Oficioac</i> -en ale ezagun bakarrari falta zitzaizkion orriak osatu zituen esku ezezagunaz / <i>In search of the identity of the hand that completed the missing pages of the only known copy of The three offices of the Virgin by Harizmendi</i> . . . . .	207

MAITENA ETXEBARRIA, Bilingüismo y realidad sociolingüística de la lengua inga en Colombia / <i>Bilingualism and Sociolinguistic Reality in the Inga Language of Colombia</i> . . . . .	237
BEATRIZ FERNÁNDEZ eta ANE BERRO, <i>Orhiko xoria Orhin lakhet</i> : izen/adjektibo psikologikoak, gai lokatiboak eta predikazioa / <i>Psych nouns and adjectives, PP-themes and predication (or a leopard cannot change its spots)</i> . . . . .	253
FERNANDO GARCÍA MURGA, The Semantic Composition of Basque ‘Noun + <i>egin</i> ’ predicates . . . . .	271
RICARDO GÓMEZ-LÓPEZ, Euskal gramatika zaharren katalogo baterantz: gramatika eskuizkribatuak / <i>Towards a catalog of old Basque grammars: handwritten grammars</i> . . . . .	293
JEAN-PHILIPPE GONZALEZ-EPPHERRE et BEÑAT OIHARTZABAL, Bayonne au bord du fleuve / <i>Bayonne on the riverbank</i> . . . . .	317
ENEKO HIRIART, LAURENT CALLEGARIN, PHILIPPE GARDES y FRANÇOIS RÉCHIN, La singularidad cultural del área pirenaico-occidental: dinámicas y persistencias entre la Edad del Hierro y la Época romana / <i>The cultural specificity of West Pyrenean area: dynamics and continuities between the Iron Age and the Roman period</i> . . . . .	323
JOSÉ IGNACIO HUALDE, <i>Miecha</i> / <i>Miecha</i> . . . . .	345
BERNHARD HURCH, La red vascológica de Schuchardt / <i>Schuchardt’s bascolological network</i> . . . . .	353
IVÁN IGARTUA y EKAITZ SANTAZILIA, Asimetrías gramaticales asociadas a la animación en la lengua vasca: una perspectiva tipológica / <i>Animacy-based grammatical asymmetries in Basque: a typological perspective</i> . . . . .	381
JON KORTAZAR, Gabriel Aresti eta Pedro Ignacio Barrutiaren antzerki lana / <i>Gabriel Aresti and Pedro Ignacio Barrutia’s play</i> . . . . .	397
DOROTA KRAJEWSKA, <i>Zein</i> erlatiboaren historiaz / <i>On the history of the zein relative</i> . . . . .	411
JOSEBA A. LAKARRA, CVCren ertzetako alternantziak eta aitzineuskararen hitz-familien azterketarako hatsarriak: * <i>ban/bar-bal</i> -en zirriborroa / <i>CVC-edge alternancies and the foundations of the analysis of Proto-Basque word families: An outline of *ban/bar-bal</i> . . . . .	437
JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE, Erronkaribarko etxe izenak: grafiak finkatzeko metodologia / <i>House names in the Roncal Valley: a methodology for the fixation of their written form</i> . . . . .	487
JULEN MANTEROLA, Antzinateko <i>Iturissa</i> -tik gaurko <i>ithurri</i> -ra, ezker bidetik / <i>From ancient Iturissa to modern ithurri, through the left-hand door</i> . . . . .	507
MIKEL MARTÍNEZ ARETA, Indagaciones intergeneracionales en la antroponimia aquitana / <i>Intergenerational inquiries into the Aquitanian anthroponymy</i> . . . . .	517
MATÍAS MÚGICA, La lengua vasca en la Península entre Antigüedad y Edad Media. Observaciones a la <i>communis opinio</i> / <i>Basque language in the Iberian peninsula between Antiquity and Middle Ages. Some remarks on the communis opinio</i> . . . . .	553
GARAZI DE OLANO MARTINITZ-XIL eta GORKA ELORDIETA, Arabako herri izenen azentueraz / <i>On the accentuation of Basque place names in Álava</i> . . . . .	577

MIREN LOURDES OÑEDERRA, Hots-aldaketaren inguruan / <i>About sound change</i> . . . . .	605
BEÑAT OYHARÇABAL eta MANUEL PADILLA-MOYANO, Geroaldiko partizipio prospektiboaren polimorfismoa eta <i>-n</i> -dun aditz klasea / <i>The polymorphism of the participle prospective of future and the -n class of verbs</i> . . . . .	619
MANUEL PADILLA-MOYANO, <i>Feitac espravi dutuçu</i> : partizipio sail berri bat Zuberoan / <i>Feitac espravi dutuçu: a new group of participles in Souletin Basque</i> . . . . .	629
JOSÉ A. PASCUAL, La relación entre los manuscritos 10 202 y 10 203 de la BNE, del <i>Árbol de las batallas</i> / <i>The relationship between the BNE manuscripts 10 202 and 10 203 of the Árbol de las batallas</i> . . . . .	647
DAVID PETERSON, La lengua del hierro. Nexos medievales entre Álava y la Demanda / <i>The language of iron. Medieval links between Alava and the Demanda</i> . . .	657
MIKEL POZO FLORES, <i>Rustici</i> y bagaudas en Vasconia: la elección de un vocablo en Hidacio / <i>Rustici and Bagaudae in Vasconia: The choice of a word in Hydatius</i> . . .	673
URTZI REGUERO UGARTE, NOR-NORI-NORK saileko perifrasieta aditz laguntzaileak goi-nafarreraz: azterketa eta proposamen berria / <i>Ditransitive auxiliary verbs in indicative and non-indicative periphrasis in high-Navarrese dialect: an analysis and a new proposal</i> . . . . .	683
IÑIGO RUIZ ARZALLUZ, Vasconia en el siglo XII: Roger de Howden, el <i>De Viis Maris</i> y la extensión del vizcondado de Bayona / <i>Vasconia in the XII<sup>th</sup> century: Roger de Howden, De viis maris and the expanse of the viscounty of Bayonne</i> . . . . .	697
PATXI SALABERRI ZARATIEGI, Izen ttipiak euskaraz. <i>Addenda, confirmanda et corrigenda</i> / <i>Basque hypocoristics. Addenda, confirmanda et corrigenda</i> . . . . .	713
IBON SARASOLA, Hiztegiak eta corpusak / <i>Dictionaries and corpora</i> . . . . .	733
KOLDO ULIBARRI ORUETA, Mendieta eta bere etimologietako euskara / <i>Understanding Mendieta's Basque through his Etymologies</i> . . . . .	751
BLANCA URGELL, Zer da lehenago, aditzoina ala partizipioa? Oharrak euskararen kronologiarako / <i>Which came first: the verb root or the participle? Notes for the chronology of Basque</i> . . . . .	777
LAURA VELA-PLO, A little <i>more</i> on comparison: variation and common cognitive and linguistic properties. . . . .	817
VALERIANO YARZA URQUIOLA, ¿Dedicó Isidoro de Sevilla las <i>Etymologiae</i> al rey Sisebuto? / <i>Did Isidoro of Seville dedicate the Etymologiae to the King Sisebuto?</i> . . . . .	853
LUIS MARI ZALDUA ETXABE, Onomastikaren ekarpena populatzearen berreraiketan Euskal Herrian / <i>The Contribution of Onomastics to the Reconstruction of Settlement in the Basque Country</i> . . . . .	867
KOLDO ZUAZO, Deba Ibarreko euskara / <i>The Basque of the Deba Valley</i> . . . . .	899
ENEKO ZULOAGA, Eibarko testu zaharrak berrikusten: 1754ko udal-ordenantzak / <i>Revisiting 18<sup>th</sup> century Basque administrative texts: a municipal ordinance from Eibar</i> . .	909

***Orhiko xoria Orhin lakhet:***  
**izen/adjektibo psikologikoak, gai lokatiboak**  
**eta predikazioa\***

*Psych nouns and adjectives, PP-themes and predication*  
*(or a leopard cannot change its spots)*

Beatriz Fernández  
UPV/EHU

Ane Berro  
Deustuko Unibertsitatea

**Abstract**

*Starting from Belletti & Rizzi's (1988) work, there has been a great progress in the understanding of psych predicates, but not as much on the predication involving psych adjectives and nouns. Adger & Ramchand's (2006) work on Scottish Gaelic is one exception. In this language, there are nouns that express psych states, and the experiencer and theme arguments are shown as prepositional arguments of these nouns. In Basque too, there are psych nouns, such as lakhet, and they are found with postpositional phrases that are interpreted as the themes of the psychological state expressed by the predicate. The experiencer, on the other hand, can occur either with absolutive case, ergative case or dative case. In this paper, we show that, like in Scottish Gaelic, the locative theme forms a constituent together with the psych noun in Basque. On the contrary, the experiencer does not belong to this constituent, as it is introduced by a functional head that is higher than the Pred(ication) phrase (Bowers 1993). In the case of the dative experiencer, it is introduced by an Applicative head —either Possession Appl (Adger & Ramchand 2008) or a High Appl (Pylkkänen 2002)—. The ergative, in contrast, is introduced by Voice (Kratzer 1996, Berro 2015).*

---

\* Beñat Oihartzabali gure esker ona adierazi nahi diogu lan honen idatzaldi zaharrago baten gainean egin zigun gogoetarengatik, eta iradokizun eta zuzenketengatik. Nolanahi ere den, lanaren erantzukizuna gurea baino ez da. Egileok ondoko instituzioen laguntza jaso dugu lan hau egiteko: Eusko Jaurlaritzarena, IT665-13 ikerketa proiektuaren bitartez eta POS\_2016\_2\_0023 doktore osteko dirulaguntzaren bitartez eta Espainiako Ekonomia eta Leiharkotasun Ministerioarena, FFI2014-51878-P ikerketa proiektuaren bitartez. Emaizta hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 dirulaguntza hitzarmenaren bitartez.

*We dedicate this work to professor Joakin Gorrotxategi. We do not work in the same scientific fields, but leaving aside the differences from one another, language is a wonderland for the three of us. As the saying goes, «a leopard cannot change its spots».*

**Keywords:** *Psych predicates, dative, ergative, experiencer, predication.*

## Laburpena

*Belleti & Rizzi (1988) lanetik aurrera, asko dira hizkuntzalaritza teorikoak predikatu psikologikoez eman dizkigun irakaspenak, baina ez dira horrenbeste izen edo adjektibo psikologikoez sortzen duten predikazioarekin lotutakoak. Adger & Ramchand-ek (2006) Eskoziako gaelikoaz egindako azterketa da salbuespen horietako bat. Hizkuntza honetan, egoera psikologikoa adierazten duten izenak daude, eta esperimantatzailea eta gai, izen horiekin batera datozen preposizio sintagma izaten dira. Euskaraz ere izen eta adjektibo psikologikoa daude, laket adibidez, eta gai lokatiboarekin batera jasotzen dira, hots, postposizio sintagma batekin. Esperimantatzailea, berriz, absolutiboarekin, ergatiboarekin edo datiboarekin marka daiteke egitura zein den. Lan honetan erakutsiko dugunez, gai lokatiboak osagai bakarra osatzen du izen eta adjektibo psikologikoarekin, bai gaelikoz bai euskaraz; ez, aldiz, esperimantatzaileak, zeina Predikatu Sintagma (Bowers 1993) baino goragoko buru bati zor zaion: Aplikatiboari, datiboaz markatzen denean, dela Adger & Ramchand-en Jabetza Aplikatibo burua, dela Pylkkänen-en Goi Aplikatiboa 2008 [2002], eta Boz buruari (Kratzer 1996, Berro 2015) esperimantatzailea ergatiboaz markatzen denean.*

*Lana, Joakin Gorrotxategi irakasleari eskaini nahi diogu. Ez gara ikerkuntza eremu berekoak, baina eremu batetik bestera dagoen aldea gorabehera, hizkuntza da hiruron lurralde miresgarria, eta esaera zaharrak dioen bezala, Orhiko xoria, Orhin lakhet.*

**Hitz gakoak:** *Predikatu psikologikoa, datiboa, ergatiboa, esperimantatzailea, predikazioa.*

## Atariko

*Orhiko xoria Orhin lakhet*, halaxe diote zuberotarrez. Esaera zahar horretan ageri dira lan honetako mintzagai nagusiak, hots, izen/adjektibo psikologikoa (*lakhet*) eta gai lokatiboa (*Orhin*). *Laket* askotariko predikatu egituretan azal daiteke gai lokatiboarekin batera, eta esperimantatzaileak ere egitura bakoitzaren araberrako kasua du eskura: iragangaitzean, absolutiboa (*Orhiko xoria Orhin lakhet*); iragankorrean, ergatiboa (*xerriak ... lakhet du zikhinpean*), eta azkenik, iragangaitz datibodunean, datiboa (*gizonari bere baitan lakhet zaio*). Gure mintzagaietan azkena, hain zuzen, esperimantatzailea da bere kasu markapenarekin batera.

Izen psikologikoko predikazioa beste hizkuntza batzuetan ere jasotzen da, hala nola, Eskoziako gaelikoan (Adger & Ramchand 2006, aurrerantzean A&R). Hizkuntza honetan, egoera psikologikoa adierazten duten izenak daude —A&R-ek  $\Psi$ -IS deritzete izen horiek buru duten sintagmei—, eta eurekin batera datozen esperimantatzaileak preposizio sintagma izan daitezke. Euskaraz ere badira halako izen edo adjektibo psikologikoa. Batzuk izen argiak dira, hala nola, *damu* edo *dolu*; beste ba-

tzuek, berriz, izen edo adjektibo kategoria izan dezakete, lan honetako *laketek* edo *atseginek* adibidez, baina euskaraz, ez dirudi esperimentatzaileak postposizio sintagmak direnik, determinatzaile sintagmak baino. Nolanahi ere den, bi hizkuntzetako izen/adjektibo predikazioan, kopula eta izen eta adjektibo psikologikoak agertzen dira, eta gaia ere zehazten den kasuetan, lokatiboaz (edo bestelako postposizioez) marka daiteke hizkuntza batean zein bestean.

Guk lan honetan, A&R-ek Eskoziako gaelikorako proposatutako analisisia euskarara ekarri eta eztabaidatuko dugu. Erakutsiko dugunez, analisi hori ezin daiteke euskaraz bete-betean aplikatu, adibidez, ez dugu uste *laket* izentzat hartuz gero behintzat (eta ez adjektibotzat), predikatuaren subjektutzat har daitekeenik euskaraz, A&R-ek gaelikorako jotzen duten bezala, nahiz eta itxura guztiaren arabera predikatu egitura bat dugun. Hala ere, analisiaren beste alderdi batzuek euskararako ere balio dezaketelakoan gaude. Esate baterako, ez dirudi esperimentatzaileak izen edo adjektibo psikologikoarekin osagai bakar bat osatzen duenik ez gaelikoan ez euskaraz (Berro & Fernández 2017), eta balizko *Predikatu Sintagma* bat (Bowers 1993) baino goragoko buru batek gaineratzen duela dirudi. Oso litekeena da, euskaraz gaelikoz bezala, buru Aplikatibo bati esker gaineratzea esperimentatzailea, izan A&R-en *Jabetza Aplikatibo* burua, izan Pylkkänen-en *Goi Aplikatiboa* 2008 [2002], izan Aplikatiboa abizenik gabe (Odria 2017). Esperimentatzaile ergatiboa, berriz, *Boz* buruari zor zaiola (Kratzer 1996, Berro 2015) dirudi. Halaxe azal liteke, besteak beste, esperimentatzaile datiboaren eta ergatiboaren arteko aldea eta dagozkien predikatu egituren artekoa. Nolanahi ere, azterbide osoago baten zain, zenbait alderdi esanguratsu aipatu eta aztertuko ditugu hemen.

Lanak ondoko egitura izango du. 1. atalean, predikatu psikologikoen oinarriak deskribatuko ditugu. 2. atalean, *laketen* kategoriaz eztabaidatuko dugu labur. 3. atalean, predikatu psikologikoen barne egitura aztertuko dugu, zenbait irizpide baliatuz. A&R-en analisi teorikoaz eztabaidatuko dugu 4. atalean; 5. atalak gerora begirakoa jasoko du eta ondorio nagusiak bilduko ditu.

## 1. Izen psikologikoak eta predikazioa: *laket* adibide

Belletti eta Rizzi-k (1988) hiru aditz psikologiko mota bereizten dituzte euren tipologia hirukoitzean: I. *temere* mota, II. *preoccupare* mota eta III. *piacere* mota. Rol tematikoei dagokienez ez dago alderik euren artean, aditz psikologiko guztiekin batera zehazten dira-eta esperimentatzailea, hots, egoera psikologikoa jasaten duen banakoa, eta gaia, egoera psikologiko horretako edukia edo objektua. Alabaina, funtzio sintaktikoak irauli egiten dira eta kasuak ere aldatzen.

- (1) a. Gianni            teme            questo.  
          Gianni.NOM    beldur izan    hau.AKUS<sup>1</sup>  
          ‘Jonek honi beldur dio.’

<sup>1</sup> Lanean zehar laburdura hauek erabiliko ditugu: ABS = absolutiboa, AKUS = akusatiboa, Apl = aplikatiboa, Asp = aspektua, Boz = boza, D = determinatzailea, DAT = datiboa, Denb = denbora, ERG = ergatiboa, esp = esperimentatzailea, est = estimulua, INPRF = inperfektiboa, NOM = nominatiboa, ORN = orainaldia, P = preposizioa edo postposizioa, pl = plural, Pred = predikatua, sg = singular, 1, 2, 3 = lehen, bigarren eta hirugarren pertsona.

- b. Questo preoccupa Gianni.  
 hau.NOM kezkatu Gianni.AKUS  
 ‘Honek Jon kezkatzen du.’
- c. A Gianni piace questo.  
 Jon.DAT gustatu hau.NOM  
 ‘Joni hau gustatzen zaio.’ (Belletti & Rizzi 1988: 291)

*Temere* gisako predikatuarekin, Gianni, esperimentatzailea, subjektua da eta nominatiboarekin markatzen da (eta *questo* ‘hau’, berriz, osagarria da eta akusatiboduna). *Preoccupare* gisakoan, berriz, osagarria da Gianni eta akusatiboa ezartzen zaio. *Piacere*-ren adibidean, azkenik, Giannik datiboa jasotzen du, eta subjektu estatusa du egituran.

Funtzio sintaktikoei dagokienez, euskararen adibideok ez dute alderik erakusten italieraren adibideekiko, nahiz eta, jakina, ergatibo eta absolutiboa diren subjektu eta osagarriei, hurrenez hurren, ezartzen zaizkien kasuak, italieraz ez bezala:

- (2) a. Jon-ek Ane gogoratzen du.  
 Jon-ERG Ane.ABS gogoratu.INPRF edun.3sgABS.3sgERG
- b. Ane-k Jon kezkatzen du.  
 Ane.ERG Jon.ABS kezkatu.INPRF edun.3sgABS.3sgERG
- c. Jon-i Ane gustatzen zaio.  
 Jon-DAT Ane.ABS gustatu.INPRF izan.3sgABS.3sgDAT

Gramatika teorian oro har eta euskal gramatikan bereziki, II motako aditzek eman dute zeresan gehien —ikus adibidez, Artiagoitia (2000) edo Oihartzabal (2002) laburpen baterako, eta batez ere uztardura datuen inguruko eztabaidarako, eta Arad (1998) azterbide berezi baterako—. Alabaina, gure oraingo aztergai nagusiak ez dira *gogoratu*, *kezkatu* eta *gustatu* bezalako aditz psikologikoak, hau da, aditz predikatuak, izen edo adjektibo psikologikoak dituzten predikatu egiturak baino. Horiezaz den bezainbatean, bakanagoak dira lanak eta analisiak, bai gramatika teorian bai euskal gramatikan.

Salbuespen horietako bat da A&R-en (2006) lana, zeinetan Eskoziako gaelikoko izen psikologikoak biltzen dituzten egitura predikatiiboak aztertzen diren. Egitura hauetan, Preposizio Sintagma (PS) gisako esperimentatzaileak ageri dira, ondoko adibidean bezala:

- (3) Tha eagal orm. PS esperimentatzailea  
 izan.ORN beldur P.ni  
 ‘Beldurtuta nago.’

Adibidea behar bezala ulertzeko kontuan hartu behar da, gaelikoa A(ditz)-S(ubjektu)-O(sagarri) hurrenkera ezmarkatuko hizkuntza dela, eta ohikoak direla BE ‘izan’ kopula jokatuarekin hasten diren perpausak, adibidekoa bezala. Bestalde, *eagal* ‘beldur’ izen psikologikoa ere badago adibidean, A&R-ek *Ψ-IS* deritzotena. Esperimentatzailea, azkenik, PS bat da, egileok ingelesezko *on me* itzultzen dutena ingelesera. Egitura hau iragangaitzat hartzen dute egileok, izen psikologikoa argumentu bakarra hautatzen duelako, hots, esperimentatzailea. Beste alde batetik, predikatu egitura iragankorra denean, hau da, esperimentatzaileaz gain, gaia bera ere jasotzen denean, orduan, bi PS ageri dira bata bestearen ondoan gaelikoan:



- (4) Tha gaol agam ort. PS esperimentatzailea; PS gaia  
 izan.ORN maite P.ni P.zu  
 ‘Nik zu maite zaitut.’

Adibide honetan, kopulaz eta izen psikologikoaz gain, esperimentatzailea eta gaia PS banatan adierazten dira, batetik *agam*, egileek *at me* itzultzen dutena ingelesera, eta bestetik, *ort*, ingelesez *on you*.

Aldeak alde, euskaraz ere asko dira predikatu psikologikoak osa ditzaketen izen eta adjektiboak, eta euren artean daude, besteak beste, *atsegin*, *damu*, *dolu*, *gaitzi*, *laket*, *higuin*, *plazer* eta *urriki* (Etxepare 2003, Fernández & Ortiz de Urbina 2010). A&R-en *Ψ-IS* deitura Adjektibo Sintagmetara zabaldu (*Ψ-IS/Adj*) eta analisietarako gordeaz, *I(zen)/Adj(ektibo)psikologikoak* deituko diegu testuan zehar. Guk lan honetarako *laket* aukeratu dugu, askotariko predikatu egituretan azaltzen delako, eta gai lokatiboa ere erakuts dezakeelako, hots, PS gisako gaia. Ondorioz, hiru predikatu egitura nagusi sortzen dira, ondoko adibideetan ikus daitezkeenak.

- (5) a. Orhiko xoria, Orhin lakhet.  
 b. Ez luke bada hanbat iduri, xerriak ezen lakhet du zikhinpean. (Dv *Lab* XXXIV)  
 c. Ezen gizonari bere baitan laket zaionean, higoitzen zaitzu, hura higoin duzu (SP *Imit* 80)

Hiru predikatu egitura hauetan, *laket* izen psikologikoaz gain, esperimentatzailea eta gaia azaltzen dira, eta alde horretatik egitura iragankortzat joko lukete A&R-ek, baina hirurak bereizi behar ditugunez elkarren artean, euskal gramatikan ohi bezala erabiliko ditugu guk iragangaitz eta iragankor deiturak, ondoren azalduko dugunez.

Gaia lokatiboarekin, edo nahiago bada inesiboarekin, markatzen da hiru egituretan. Hiruretan beraz, PS bat dago. Alabaina, esperimentatzaileak egituraren araberako markapena du: egitura iragangaitzean (5a), halaxe deituko diogu, absolutiboa (*Orhiko xoria*); iragankorrean (5b), ergatiboa (*xerriak*), eta azkenik, iragangaitz datibodunean (5c), datiboa (*gizonari*). Kopula bera ere, egitura batetik bestera aldatzen da. Izan ere, *izan* (BE) hautatzen da (5a) eta (5c) adibideetan (lehenean, inplizituki, kopula isiltzen da-eta), eta *\*edun* (HAVE), berriz, (5b) adibidean. Kopula, azkenik, jokatu egiten da eta komunztadura egiten du absolutiboarekin (ABS) lehen egituretan, ergatiboarekin (ERG) bigarreanean eta datiboarekin (DAT) hirugarrenean:

- (6) a. ABS esperimentatzailea Ψ-IS/AdjS PS gaia *izan* iragangaitza  
 b. ERG esperimentatzailea Ψ-IS/AdjS PS gaia *\*edun* iragankorra  
 c. DAT esperimentatzailea Ψ-IS/AdjS PS gaia *izan* iragangaitz datiboduna

*Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) zein *Egungo Testuen Corpusean* (ETC) ere jasotzen dira gaur egun predikatu egitura hauen agerraldiak:

- (7) a. Antzerkian laket zen orduan gazteria. (*Herria*, 2004-11-04)  
 b. Euskaldun Gazteriaren biltzarretan laket zuen. (*Herria*, 2010-04-11)  
 c. Arraintzan ere laket zaio Janbattitt-eri. (*Herria*, 2011-08-04)

Dena dela, maiztasun aldetik, askozaz ere sarriago aurkitzen dira gaur egun behintzat, gaia absolutiboarekin markatzen duten egitura predikatiboak (8), nahiz eta lan honetatik aparte utzi ditugun, lokatibodunak baino.

- (8) a. Oso laket dut nik Aiherra. (*Herria*, 2003-12-25)  
 b. Musean hartzea laket zaio eta Beti Gazte batasunean partaide da. (*Herria*, 2003-11-20)

Azkenik, *laket* izen psikologikoko egitura predikatiboek badute euren aditz ordaina, hots, *laketu*, eta konfigurazio berberetan aurkitzen da, ondoko adibide klasikoetan ikus daitekeenez.

- (9) a. Laster laketu zen bere herri berrian. (Lf *Elit* 270)  
 b. Ez du gure eskualdetan laketzen arranoak. (Zerb *Azk* 85)  
 c. Erlei lakhetzen zaie bere eztiaren ingurunean. (PS Phil 514s)  
 b. Ez ote zaitzu lakhetu zure desterruan. (Brtc 88). (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 95)

Baita egungo euskararen adibideotan ere:

- (10) a. Agian laketuko zira euskal herri hortan. (*Herria* 2003-07-24)  
 b. Gure artean agian laketuko dute. (*Herria* 2006-04-13)  
 c. Agian laketuko zaigu Iholdin. (*Herria* 2006-05-11)

Xehetasunez ikusi behar da gerora begira, ea *laket* predikatuak eta *laketuk* jokatibide bera ote duten. Esperimentatzailearen kasu markapenera begira behintzat, ez dirudi alderik dagoenik batetik bestera. Gaiaren markapenak aparteko azterketa mereziko luke, gerora begira.

## 2. *Laket* eta kategorizazioa: izen edo adjektiboa?

*Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH), *laket* izen gisa eta adjektibo gisa sailkaturik agertzen da, baina OEHn oinarritzen den *Euskal Hiztegiak* (EH) eta *Eguno Euskararen Hiztegiak* (EEH) adjektibo gisa baino ez da jasotzen, eta *Nola Erran* hiztegiak ere, egitura predikatiboetatik aparte, adjektiboen kidekotzat hartzen du, ez izenena. Badirudi, beraz, *laket* adjektiboa dela gaur egun eta ez izena. Hala ere, euskarazko beste predikatu batzuekin gertatzen den bezala, kategoria batek zein besteak duten banaketa erakuts dezake. Batzuetan, *laket* adjektiboa dela dirudi, batetik, adjektiboek hartzen dituzten atzizki konparatiboekin eta superlatiboekin ager daitekeelako (11a,b) eta bestetik, izen bati lagun diezaiokeelako (11b,c), adjektiboek egiten duten bezala.

- (11) a. Eleketa laketago liburutan baino, eta errexkiago ari. (HU *Aurp*)  
 b. Pater eta Ave Maria erraiten baitügü, zoin baitzaio othoitze laketenak. (Bp I 123)  
 c. Arraintzan zuen bere bizimodu laketena. (Zub 21)

Beste batzuetan, baina, izenei egozten zaizkien ezaugarriak erakusten ditu: postposizioen osagarria izan daiteke (12a,b) eta adjektiboek lagundurik ager daiteke (12c).

- (12) a. Gogorki kentzen dautsez diru ta lagunak / laket-barik bai-daurkiz beti gau ilunak. (Laux *Bba* 58)  
 b. Iñoiz etzan ahuldu laketan. (Laux *AB* 47)  
 c. Laket bizian etzaten da lotan. (Arti *MaldanB* 191)

Lan honetan aztergai ditugun egitura predikatiboetan, eztabaidagarria da *laket* izena edo adjektiboa den. Adibidez, gai lokatibo bat hartzea izan daiteke izentasunaren zantzua. Bestalde, gai lokatiboa jasotzen duten adibideen artean, ez dugu behin ere ikusi *laket* adjektiboa dela iradokitzen duen ezaugarriarik, esaterako, atzizki konparatiborik edo adjetiboak laguntzen dituen adverbiorik. Horrek berriro ere *laket*en izentasunaren alde makurtzera eramán gintzake. Gaia absolutiboz markatzen denean, aldiz, erraz aurkitzen dira horrelakoak.

- (13) a. Plazentago eta laketago zaika Iainkoari miserikordia iustizia baiño. (Ax 138 (V 91)).  
 b. Debozione, zure semiari hain laket [zaiona]. (Mercy 22)  
 c. Apostolien obra bat, Jinkuari ezinago laket lizatekiana. (CatS IX)

Dena dela, euskal hiztegietan agertzen den intuizio nagusiari jarraituz gero, adjektiboa dela pentsa daiteke, eta horixe da Beñat Oihartzabalen ustea, buruz buru adierazi digunez. Printzipioz, adjektiboa izateak eta ez izenak ez dakar oso ondorio larriarik lan honen ekarpenera begira, eta batetik zein bestetik joz gero, gure emaitzak berberak izango dira. Alabaina, A&R-en analisia euskara dagoen-dagoenean ekartzeko, *laket* izentzat jo beharko genuke eta ez adjektibotzat, nekez onar litekeelako adjektibo bat egituraren subjektutzat hartzea, eurek gaelikorako egiten duten bezala. Helduko gara horretara laster.

Lan honetan, beraz, orain arte bezala, I/Adj psikologikoez hitz egingo dugu. Kontuan izan gure lan honetako mintzagai nagusia *laket* izan arren, eta bere kasuan, adjektiboa edo izena ote den zalantza sor daitekeen arren (edo besterik gabe, adjektibotzat jo daitekeen arren), beste predikazio batzuetan agertzen diren ale lexikoak izentzat baino ezin daitekeela hartu, adibidez, *beldur*, *damu*, *dolu*, *gorroto* eta abar, eta analisia *laket*etik beste predikatu horietara guztietara zabaldu nahi izanez gero, eta hala egin behar dela dirudi, euskaraz behintzat izenak zein adjektiboak, kategoria biak izan behar ditugula gogoan.

### 3. Predikatu psikologikoen barne egitura arakutzen

Analisiaren gaineko eztabaida hasi baino lehen, I/Adj psikologikoko egitura predikatiboen barne egitura arakatu beharra dago erabakitzeke zein nolako lotura duen esperimantatzaileak I/Adj psikologikoarekin eta zein gai lokatiboak. Horretarako, A&R-ek (2006) zenbait irizpide darabiltzate, hots, *osagaitasuna* (ingelesez, *constituency*), *hierarkia*, *hautapena* eta *hitz hurrenkera*, eta guk guztien artean hiru aipatuko ditugu ondoko lerroetan —hautapenerako, ikus 4.1 atala—. Osagaitasunak berebiziko garrantzia du predikatuaren barne egitura zein den erabakitzerakoan (ikus baita Berro & Fernández 2017); hierarkia eta hitz hurrenkera ezagunagoak dira gure artean, eta labur jasoko ditugu.

### 3.1. Osagaitasuna

Irizpideetan lehena, osagaitasuna da, eta bere arabera erabaki daiteke ea esperimendatzailea eta gaia besarkatzen dituen egitura predikatiboan, zein den bietatik I/Adj psikologikoarekin batera osagai bakar bat osatzen duena.

Hasi gaitezen, beraz, egitura predikatibo iragankorarekin (*zerriak laket du zikinpean*). Esperimendatzailea ERGrekin markatzen da egitura honetan, eta *laket* I/Adj psikologikoren ezkerretara lerratzen da subjektuari dagokion gune kanonikoan. Gai lokatiboa, bestalde, *laketen* (eta inflexioaren) eskuinetara agertzen da (*laket du zikinpean*), baina bere ezkerretara ere ager daiteke ERGren eta *laketen* artean kokatuz (*zerriak zikinpean laket du*), eta azken haxe izango da ziur aski kanonikoki dagokion gunea.

Printzipioz, ez dirudi ERGz markatutako esperimendatzaileak *laketekin* osagai bakarra sor dezakeenik. Kontuan izan, gaelikoaren (4) egituran, bi PS direla izen psikologikoarekin harremanetan daudenak, eta hortaz, teorikoki behintzat batek zein besteak era lezakeela osagaia izen psikologikoarekin batera. Euskaraz, aldiz, ERG ez da postposiziotzat hartzen ezta ERG sintagma PStzat ere. Alde horretatik, argi dago euskara gaelikoa ez bezalakoa dela. Nolanahi ere den, alde batera utzita euskalaritzak ERG sintagmaz orain arte irakatsi diguna, hots, subjektuak diren DSak markatzen dituela, osagaitasunaren bitartez erakuts daiteke esperimendatzaile ERGk ez duela osagai bakar bat osatzen I/Adj psikologikoarekin.

Jo dezagun lehenik *arrakala perpausetara* (*cleft-sentences*). (14a) adibidean ikus daitekeenez, ERG eta I/Adj psikologikoa ezin daitezke batera *arrakalatu*. Aldiz, gai lokatiboa eta I/Adj psikologia bai (14b).

- (14) a. \*[Zerriak laket] da zikinpean (sentitzen) duena.  
b. [Zikinpean laket] da zerriak (sentitzen) duena.

Hortaz, bi osagaien (esperimendatzailearen eta gaiaren) arteko asimetria ikusten dugu I/Adj psikologikoarekiko: esperimendatzaile ERGk eta I/Adj psikologikoak ez dute osagai bakar bat osatzen; gai lokatiboak eta I/Adj psikologikoak, aldiz, bai.

Ikus dezagun orain egitura iragangaitz datiboduna (*gizonari bere baitan laket zaiio*). Galdera izatez lehenengo bera da, hots, esperimendatzaileak osagai bakar bat eratzten ote duen I/Adj psikologikoarekin. Alabaina, egitura honetan esperimendatzailea DATrekin markatzen da, eta jakinik DATetatik zenbaitek PSena bezalako jokabide sintaktikoa dutela (Odria 2017), galderak zentzu handiagoa du beharbada egitura honetan, ergatibodunean baino. Alabaina, arrakalatzeko kontuetan, esperimendatzaile DATek ere ez dute osagai bat sortzen I/Adj psikologikoarekin batera (Berro & Fernández 2017), eta alde horretatik, behintzat, ERGek bezalakoxe joera daukate.

- (15) a. \*[Gizonari laket] da norbere baitan (sentitzen) dena.  
b. [Bere baitan laket] da gizonak (sentitzen) duena.

Bigarrenik, ezezko perpausak osagai bat aurreratu eta *baizik / besterik* daramanean, osagai horretan ezin daiteke esperimendatzailea I/Adj psikologikoarekin batera aurreratu, ez ERG (16a) ez DAT (17a); gai lokatiboa, berriz, bai (16b) eta (16b) adibideetan ikus daitekeenez.

- (16) a. \*[Zerriak laket] baizik ez da zikinpean (sentitzen) duena.  
b. [Zikinpean laket] baizik ez da zerriak (sentitzen) duena.

- (17) a. \*[Gizonari laket] baizik ez da norbere baitan (sentitzen) dena.  
 b. [Bere baitan laket] baizik ez da gizonak (sentitzen) duena.

Beraz, arrakala perpausek zein ezezko perpaus hauek erakusten dute esperimentatzaileak, izan ERG izan DAT, ez duela I/Adj psikologikoarekin batera osagai bakarria eratzen (18a); gai lokatiboak (18b), aldiz, bai.

- (18) a. Esperimentatzaile-ERG/DAT [ $\Psi$ -IS/AdjS gai-PS]  
 b. \*[Esperimentatzaile-ERG/DAT  $\Psi$ -IS/AdjS] gai-PS]

Ez dago honi dagokionez alderik euskararen eta gaelikoaren artean.

### 3.2. Hierarkia eta hitz hurrenkera

Irizpideen artean bigarrenak zerikusia du esperimentatzailearen eta gai lokatiboaren arteko hierakiarekin. Hierarkia horren arabera, ERGk zein DATk gai lokatiboa o-komandatzen dute, (19a) eta (19c) hurrenez hurren, eta ez alderantziz: esperimentatzaileak anafora elkarkaria uztartzen du bi adibide horietan, eta uztartu gabeko anaforak ezgramatikaltasunera daramatza (19b) eta (19d) adibideok.

- (19) a. Gizonek elkarren baitan laket dute.  
 b. \*Elkarrek gizonen baitan laket dute  
 c. Gizonen elkarren baitan laket zaie.  
 d. \*Elkarri gizonen baitan laket zaie

Alderdi honetan ere, gaelikoan bezala, esperimentatzaileak o-komandatzen du gai lokatiboa. Esperimentatzailea, beraz, gorago dago egituran gai lokatiboa baino, harritzekoa ez dena kontuan hartzen badugu zein den oro har ERG eta DAT esperimentatzaileek gaiekiko erakusten duten hierarkia aditz psikologikoko egituretan (Belletti & Rizzi-ren sailkapen hirukoitzeko I eta III motakoekin, hain zuzen).

### 3.3. Tarteko ondorioak

Ondorioz, hauexek dira A&R-i jarraituz, I/Adj psikologikoko egitura predikatiboez esan dezakeguna, aldeak alde, euskaraz eta Eskoziako gaelikoz berberak direnak: lehenik eta behin, I/Adj psikologikoak osagai bakarria osatzen du PS gisako gaiarekin; bigarrenik, I/Adj psikologikoak ez du osagai bakarria osatzen ez ERG ez DAT esperimentatzaileekin, eta hirugarren eta azkenik, ERG eta DAT gorago daude gaia baino, eta hortaz, baita izen psikologikoak eta gaiak osatzen duten osagai konplexua baino gorago ere.


## 4. Analisiaren zumitzak

Eskoziako gaelikoarekin konparatu dugu euskara, eta predikatuaren barne egiturara begira, hizkuntza biek antzekotasunak dituztela erakutsi dugu. Horrek pentsaraz liezaguke A&R-en analisia bera ere euskarara ekar genezakeela. Alabaina, ez dirudi analisia bete-betean behintzat euskarara ekar daitekeenik. Ondoko lerroetan erakutsiko dugu analisi horretatik euskarak zer jaso dezakeen (4.2 atala) eta zer ez (4.1 atala). Ez dugu ordezkari analisi osorik proposatuko, baina gutxienez, analisiaren zumitzak zein diren argitzen saiatuko gara atal honetan.

#### 4.1. Predikatu Sintagma, I/Adj psikologikoaren kokalekua eta hitz hurrenkera

A&R-ek euren analisisian, *Predikatu* (*Pred*) buru bat eta bere sintagma (*PredS*) proposatzen dute Bowers-i (1993) jarraituz. Eskoziako gaelikoaren (4) adibidea dakargu berriro ondoren bere analisiarekin batera. *PredS*, zuhaitzaren oinarrian dago.

- (20) a. Tha gaol agam ort. PS esperimentatzailea; PS gaia  
 izan.ORN maite p.ni p.zu  
 ‘Nik zu maite zaitut.’



*PredS*ren barruan ikus daitekeenez, psiko-izena predikatuaren subjektutzat hartzen da, eta subjektu gisa ere azaleratzen da, *AspS*ren Espezifikatzaile gunean. A&R-ek subjektutzat hartzen dute psiko-izena, hizkuntza bereko beste edozein subjekturen gune berean kokatzen delako, halaxe diote. Horretarako ebidentzia batzuk erabiltzen dituzte, adibidez, perpaus jokatueta, subjektua aditz jokatuaren eskuinetara lerratzen da (gogoratu ASO hurrenkera ezmarkatuko hizkuntza dela gaelikoa). Ebidentzia gehiago dator, bestalde, adberbioen kokalekutik. Gaelikoz, adberbioa subjektuaren eskuinetara eta predikatuaren ezkerretara (21a) kokatzen da. Orobat, izen psikologikoaren eskuinetara eta predikatu psikologikoaren ezkerretara kokatzen da (21b) adibidean.

- (21) a. Bith Iain an comhnaidh a' snamh.  
 izan Jon beti asp igeri.egiten  
 ‘Jon beti ibiltzen da igerian.’
- b. Bith gaol an comhnaidh aig Iain air Mairi.  
 izan maite beti P(at) Jon r(on) Miren  
 ‘Jonek beti maiteko du Miren.’


Hortaz, izen psikologikoa subjektutzat hartzeko oinarria erakusten du gaelikoak. Euskaraz, alabaina, hitz hurrenkera oso bestelakoa da, eta ez zaio inondik inora lotzen (20b)ko zuhaitzetik erator daitekeenari. Zuhaitzean, osagarrien eta buruen ar-

teko hurrenkera alderantziz irudikatuta ere (osagarria-burua, eta ez zuhaitzeko burua-osagarria), ez dirudi euskaraz, *laket* izentzat harturik ere, subjektutzat har daitekeen inola. Euskaraz ez dugu *laket-zerriak-zikinpean* edo *laket-gizonari-bere baitan* bezalakorik. Egitura batean zein bestean, subjektua, dudarik gabe, esperimendatzailea bera da. Kopula gaineratzeak (*izan* zein *\*edun*), bestalde, gauzak are gehiago katramilatuko lituzke. Baldin eta Denbora (Denb) burutik esekiko bagenu, A&R-ek gaelikorako egiten duten bezala, orduan, *du-laket* eta *zaio-laket* izango genuke, gutxienez (20b)ri jarraituz gero, eta inork ez luke esango hori hurrenkera ezmarkatua denik euskaraz.


Beste alde batetik, *laket* kopularen ezkerretara eta ondo-ondoan agertu behar da derrigor. Hortaz, alde horretatik ere ezin daiteke pentsatu predikatuaren subjektua denik. Horra begira, *laket*en hurrenkera, gai lokatiboa izanagatik ere, gai absolutiboa duten I/Adj psikologikoko beste predikatu batzuen hurrenkera bera da, adibidez *atseginena*.

- (22) a. Zerriak (\*laket) zikinpean \*(laket) du.  
 b. Jonek (\*atsegin) txokolatea \*(atsegin) du.  
 c. Gizonari (\*laket) bere baitan \*(laket) zaio.  
 d. Joni (\*atsegin) txokolatea \*(atsegin) zaio.


Horrek erakusten du, gai lokatiboa izan zein gai absolutiboa, I/Adj psikologikoa ez dela predikatuaren subjektua. Gainerakoan, Pred burua bera ere morfologikoki ahoskatzen ez dela onetsiz gero (Bowers 1993, A&R), PredSren barruko analisi zatikatu bat izango litzateke (23)koa —burua *azkenik* irudikatuko dugu hemen—.



Jo dezagun, bada, (23) dela euskararako analisi zatia. Ψ-IS/AdjS izango litzateke Pred buruaren osagarria, eta sintagma horrek bere barruan izango lituzke I/Adj psikologikoa zein bere osagarria, hots, PS:




Orduan, baina, sortzen da galderarik zailena: zein da predikatu horren subjektua? Aukera teoriko bat izan liteke, nahikoa kontraintuitiboa izan arren, PS izatea predikatuaren subjektua:



Alabaina, (25)eko analisiak badu kontrako argumentu sendo bat, hautapena hain zuzen, A&R-ek bestelako arrazoiengatik darabiltena. Izan ere, hemen *laket* beste inongo I/Adj psikologikorik aztertu ez badugu ere, izatez, badirudi bere eta beste I/Adj batzuen arabera aurkitzen direla nagusiki P batzuk edo besteak. Hori Eskoziako gaelikoan gertatzen da eta euskaraz ere bai. Adibidez, *laketekin* batera, ikusi dugunez, gai lokatiboa hautatzen da; aldiz, *damu* psiko-izenarekin, ez da lokatiboa hautatzen, instrumentala baino (*horretaz damu naiz / horretaz damu dut*). Hortaz, badirudi buru-osagarri harremanean ezartzen dela zein PS hautatzen den, hots, I/Adj psikologikoaren arabera dugula PS bat edo bestea. Hori printzipioz ez dugu subjektu batetik espero, osagarri batetik baino.

Bigarren aukera teorikoa naturalagoa da, hots, esperimantatzailea izatea PredS honen subjektua. Kontuan izan, gorago ere esan dugun bezala, esperimantatzaileak ez duela osagai bakarra eratzen I/Adj psikologikoarekin batera, eta PSk eta I/Adj psikologikoak eratzen dutena baino gorago dagoela eta aldi berean, o-komandatzen duela. Hortaz, esperimantatzailea PredS horren subjektu gunean izaki, egitura eta hierarkiari dagozkion ezaugarri guztiak beteko lirateke.



Hortaz, euskararako ez dugu bazterrean uzten esperimantatzailea subjektu gisa duen PredS bat izateko aukera (26). Alabaina, ikusi dugunez, esperimantatzaileak askotariko kasu markapena du euskaraz, alegia, ABS (*Orhiko xoria*), ERG (*zerriak*) eta DAT (*gizonari*), eta ez dirudi hiru esperimantatzaileoi gune sintaktiko bera egotz dakiekeenik (hirurak esperimantatzaileak izanik, aukera desiragarriena hori litzate-




keen arren). Izatekotan, (26)ko zuhaitzean, esperimentatzaile ABS (*Orhiko xoria*) egon liteke beharbada, baina ez gainerako esperimentatzaile biak. Bestalde, esperimentatzaile ABS alde batera utzita, beste biek (ERGk eta DATk) ez badute sortzezko gunea PredSren Espezifikatzaile gunean, orduan, PredSri subjektua falta zaio eta predikatuaren beraren definizioa galtzen da erabat.

Laburbilduz, PredS baten aukera teorikoa erakargarria da eta xehetasunez arakatu beharrekoa. Dena dela, A&R-en analisiak arazo bat baino gehiago dakartzkigu euskarara. Lehenik eta behin, baldin eta *laket* adjektiboa bada, orduan besterik gabe ezin daiteke subjektutzat hartu. Bigarrenik, *laket* izentzat hartu eta *damu* bezala tratatuko bagenu ere, gaelikoz ez bezala, euskaraz subjektutzat hartzea ezinezkoa litzateke hitz hurrenkera tarteko. Hirugarrenik, baldin eta (26)ko zuhaitza onartuko bagenu *Orhiko xoria*, *Orhin lakhet* eratortzeko, orduan subjektu-predikatu harremana egokiro zainduko genuke, baina mintzagai ditugun gainerako bi egiturei dagokienez A&R-ek bezala, esperimentatzailea PredS hori baino gorago dagoen buru bati egotziko bagenio, orduan (24) eta (26)ko analisiak harreman hori urratuko lukete (PredSren barruan subjekturik izango ez genukeelako). Honi dagokionez, beraz, analisiak erdizka baino ezin litzake azaldu euskararen predikatu egitura hauek.

#### 4.2. Esperimentatzaileak, Aplikatiboa eta Boza

Euskaraz, I/Adj psikologikoa predikatuaren subjektutzat ezin hartzeak galdera erantzuten zailak sortzen dizkigu, ikusten denez, PredSren existentzia bera ere zalanztatan jartzera garamatzana. Dena dela, izan PredS izan XS, hots, *enigma* sintagma bat, hori baino goragoko buru funtzional batek ekarriko luke esperimentatzailea egiturara gaineratzea ERG zein DAT daramanean. Adibidez, gogora ekar dezagun gure hiru egitura nagusietatik bat (27a,b). Egitura hau irangangaitz datiboduna dela esan dugu lanaren hasieratik, *izan* kopula duelako batetik (ez \**edun*) eta datiboduna delako bestetik (*gizonari*) ez datibogabea. Horretaz gain, gai lokatiboa du (*bere baitan*). Analisisan, datiboa izanik gai lokatiboa bera baino lehenago lerratu eta o-komandatzan duena, Espezifikatzaile gune bat dagokiola dirudi.

- (27) a. Gizonari bere baitan laket zaio.  
 b. DAT esperimentatzailea  $\Psi$ -IS/AdjS PS gaia *izan* (irangangaitz datiboduna)  
 c.




Analisian (27c), Aplikatibo (Apl) buruari esker gaineratzen da DAT esperimentatzailea egiturara. Apl buru hori Jabetza Aplikatibotzat hartzen dute A&R-ek, nahiz

eta, zehazten dutenez, buru hori Pylkkänen-en 2008 [2002] (*Goi*) *Aplikatioa* bera izan daitekeen. Egile hauen aierua da buru honek zerikusia duela jabetzarekin —horretatik hain zuzen deitura—, eta bizidunak egoera psikologikoetan, izatez egoera psikologiko horien jabeak direla. Euskaraz, esperimantatzaile zein jabe datiboentzat Apl buru bat bereizi du baita Odriak (2017) ere aditz predikatuko egituretan. Analisisan, berebiziko garrantzia du azpimarratzeak AplSren subjektua, hots, esperimantatzaile biziduna dela. Izatez, esperimantatzaileak bizidunak izan behar dira, bestela ezin daitezkeelako izan, literaturan aspaldion egotzi izan zaien beste ezaugarri bat, alegia, *kontziente* edo *jakituna* izatea (ingelesez, *sentient* deritzo). A&R-ek ez dute ezaugarri hau aipatzen, baina esplizituki diote gaelikoan egitura predikatibo hauetan P bat jasotzen duen esperimantatzailea ez dela PS huts bat, biziduna izan behar den PS bat baino. Hortaz, beste argudio bat dute (27c) analisisan bezala, PS esperimantatzaileari Espez, Apl gunea egozteko.

Goiko analisiak, bestalde, predikatu egiturei buruz zehaztu ditugun ezaugarri nagusiak erakusten ditu: lehenik eta behin, DAT esperimantatzailea gorago dago eta lehenago lerratzen da gai lokatiboa baino; bigarrenik, eta aurreko ezaugarriarekin lotuaz, esperimantatzaile horrek berak gai lokatiboa o-komandatzen du; hirugarren eta azkenik, gai lokatiboak osagai bakar eta beregain bat osatzen du, DAT esperimantatzaileak o-komandatzen duena.

Beraz, A&R-en analisisa, honi dagokionez, gaelikorako ez ezik, euskararako ere balia daiteke. Alabaina, euskaraz bada beste egitura bat, gaelikoan jasotzen ez dena, hots, esperimantatzaile ERG dakarrena (28a,b). Printzipioz, aipatu berri ditugun hiru ezaugarriak jaso behar ditu predikatu egitura honen analisisak ere, baina Apl buruaren bitartez, DAT erdiets daiteke, ez ERG. Hortaz, Apl buruaren ordeko buru bat behar da. Guk, Kratzer-i (1996) eta Berrori (2015) jarraituko diegu eta buru hori *Boz* burua dela onetsiko dugu —analisi (28c)koa litzateke—.

- (28) a. Zerriak laket du zikinpean.  
 b. ERG esperimantatzailea  $\Psi$ -IS/AdjS PS gaia \**edun* (iragankorra)  
 c.



Boz buru horretatik dator esperimantatzaile DATren eta ERGren arteko aldea eta dagozkien predikatu egituren artekoa. Bozak jabe argumentu bat sartzen du bere Espez gunean, eta ERG, kasu honetan, egoera psikologiko baten jabea dela interpreta-tzen da.

## 5. Geroaren zain

Lan honen bitartez, gogora ekarri nahi izan ditugu aditzak ez diren bestelako predikatuak, zeinak euskal gramatikak jaso eta deskribatu baditu ere (ikus, adibidez, EGLU II) ez dituen xehetasunez aztertu. Gure lana, beraz, bestelako predikatu horietara lerratu da eremu jakin batera mugatuz, zehazki, I/Adj psikologikoei osatzen dituzten predikatueta. Horretarako, *laket* I/Adj izan dugu mintzagai. *Laketek*, erakutsi dugunez, askotariko konfigurazioak ditu, eta alde horretatik beste predikatu psikologiko askok erakusten dituzten ezaugarrien eredutzat har daiteke, adibidez, *atsegin*, *damu*, *dolu*, *gaitzi*, *higuin*, *plazer* eta *urriki* izen edo adjektiboek osatzen dituzten predikatuena (Etxepare 2003, Fernández & Ortiz de Urbina 2010). Nolanahi ere den, gai lokatiboa zeinek duen eta zeinek ez, xehetasun gehiagorekin aztertu beharra dago; baita gai lokatiboaz gain, zein diren predikatu egitura hauetan jasotzen diren bestelako Pak, hau da, zein den I/Adj psikologiko bakoitzaren hautapena.

*PS laket da / laket du* alternantzia arrunt samarra da baita beste izen psikologiko batzuekin ere. Aldiz, ez dirudi oso konfigurazio arrunta denik DAT eta PS biltzen dituen, hots, *gizonari bere baitan laket zaio* adibidearena. *Laketekin*, dudarik gabe, aurkitzen da, baina DAT esperimendatzailearekin batera, gai postposizioduna erakusten duten I/Adj-ko predikazioak oso nekez aurkitzen dira. Adibidez, *damu naiz/damu dut* erraz aurkitu badaiteke ere, *horretaz damu zait* konfigurazioaren lekukotasunik ez dugu aurkitu corpusak arakatu ditugunean, baina bai *damutu* aditz predikatuarekiko baten bat: *etzitzaion sekulan damutu arekin ezkonduaz* (Mb IArg I 180).

Beraz, eta laburbilduz, arruntak dira I/Adj psikologikoko predikatuak euskaraz. Arruntak, orobat, alternantzia iragangaitz eta iragankorra (*laket naiz/laket dut*) eta alternantzia iragankor eta iragangaitz datiboduna (*laket dut/laket zait*). Gure lan honetatik alde batera utzi ditugun arren, arruntak dira gai ABS erakusten dutenak (*hori laket dut/hori laket zait*), eta bakanagoak baina gertagarriak, P gaiak dituztenak (*horretan laket naiz/laket dut/laket zait*). Hiru hauetan azkenak (*horretan laket zait*) muga hertsia ditu orokortzera begira. Ez da harritzekoa. Izatez, DATz markatutako subjektuak dituzten egiturak ez dira ABSz edo ERGz markatutakoak bezain sarri gertatzen, nahiz eta predikatu psikologikoez ari garela III *piacere* 'gustatu' mota nagusietako bat den. Eta behin subjektua DATz markatu eta gero, eskura dagoen hurrengo aukera ezmarkatuena ABS da (edo NOM hizkuntza akusatiboetan). Aukeretan azken-azkena da, beraz, subjektua DATz eta gaia P batez markatzen dituen. Maiztasuna noiz arakatuko zain, intuizio sendoa dugu honi dagokionez.

Bestalde, Eskoziako gaelikoarekin konparatuz gero, esperimendatzailea eta gaia biak egitura predikatibo berean P gisa aurkitzea, ez da euskaraz dagoen aukera. Bien artean, gaia P izatea bai, baina esperimendatzailea P izatea ez. Esperimendatzaileak, erakutsi dugun bezala, *kasuetatik* bat jaso behar du halabeharrez, hots, ABS, ERG edo DAT. P batetik gertuen DAT dago beharbada, baina esperimendatzaileek erakusten duten DATk ez du P gisa jokatzeko. Horregatik, hain zuzen, ego-tzi diogu Apl buruari DAT gaineratzea (eta A&R-ek gaelikorako egiten duten bezala).

Azkenik, euskarak ere badu honi dagokionez zer erakutsi sintaxi teoriari. Aditz predikatu psikologikoein sortzen diren konfigurazioak, Belletti & Rizzi-ren (1998) tipologiari lotzen zaizkio, italiara bezalako hizkuntza akusatibo baten eta ergatibo baten arteko ñabardurak gorabehera. Alde horretatik, ez da asko euskarak eztabaidara ekar dezakeena. Alabaina, I/Adj psikologikoko predikatuetan, ERG edo DAT, biak egotea (*laket dut/laket zait*), alternantzian gainera, hori *beste kupa pel bateko ardoa* da. Guri beharbada bitxia iruditzen zaigu gaelikoaren egitura (kopula  $\Psi$ -IS PS PS), baina euskararenak (ERG/DAT  $\Psi$ -IS/AdjS PS kopula) ere badu bitxitasunik, eta galdera esanguratsuak sortzen ditu. Adibidez, zein estatus duen hemen (eta oro har) ERG kasuak eta kasu hau daraman argumentuak. Egoera psikologiko batez ari bagara, ERG kasuko argumentuak gutxi du egiletasunetik: esperimentatzailea da, edo A&R-ek esango luketen bezala, egoera psikologikoaren jabea. Gainera, ERGk ez du osagai bakar bat osatzen izen psikologikoarekin, hori ere erakutsi dugu. Hortaz, buru funtzional bati zor zaio ERG hori. Guk Boz buruari egotzi diogu ERG, Berrok (2015) euskararako Kratzer-i (1996) jarraituz proposatu duen bezala. ERGren sorburua ezin daiteke Apl burua izan, azken honek DAT dakarrelako.

ERGren inguruko galderez gain, euskara hizkuntza ergatiboa den aldetik, kopula txandakatzeaz (*izan* vs *\*edun*) ere bada zeresanik. ERG edo DAT hautatzeak konfigurazio sintaktiko beregainetara garamatza, kopularen ahoskatze beregainekin. ERG argumentua eta bere kasua Boz buruari (Kratzer 1996, Berro 2015) egotziz, *\*edun* deitu izan duguna, eta izatez morfologikoki *-u-* erroan jasotzen dena, ez da ziur aski *izan* gehi Boz buruaren ahoskatzea besterik. Beste alde batetik, DAT argumentua eta bere kasua Apl buruari egotziz, berriz, *izan* Apl buruari adjunktatzearen ondorioz, *izanen* konfigurazio datibodunak sortzen dira (*zait* bezalakoak). Alabaina, non eta nola sartzen da *izan* eratorpenean? A&R-i jarraituz, *Orhiko xoria...* egiturarako, onetsi dugun egituran (26), *izan*, beharbada, Denb burutik eseki liteke, kopula gaelikoan bezala, baina XS dugunean, ez dugu batere argi *izan* non sartuko litzatekeen eratorpenean.

Azkenik, lanean erantzun gabeko galderak ditugu. PredSrik ez badago euskaraz mintzagai izan ditugun egituretan, zer da *horretan laket* bezalako egitura, batez ere ERG eta DAT dauden egituretan? Zer buru du eta zein sintagma sortzen du? Edo PredSrik badago esperimentatzaile ABS jasotzen denean, zergatik ABSrekin bai eta gainerakoekin ez, predikatu egituraren analisi bakar bat beharko genukeenean? Galderak oraindik asko dira. Eztabaida, beraz, hasi besterik ez da.

## 6. Ondorioak

Lan honetan, I/Adj psikologikoein sortzen dituzten egitura predikatiboak aztertu ditugu, adibide gisa *laket* erabiliz. Egitura hauetan, esperimentatzaileak ABS, ERG eta DAT jaso ditzake eta gaiak lokatiboa. Erakutsi dugunez, ez ERGk ez DATk ez du osagai bakar bat osatzen izen psikologikoarekin; bai, aldiz, gai lokatiboak. A&R-en analisisa euskarara ekartzeak zenbait arazo dakartza, hala nola, I/Adj psikologikoa PredSren (eta perpaus osoaren) burutzat ezin hartzea edo hitz hurrenkera behar bezala ezin eratoritzea. Beste alderdi batzuk, aldiz, gurera ekar daitezke, adibidez, Apl buruari egotzea DATren ezarketa, eta A&R-en analisisian ez badago

ere, Boz buruari ERGrena. Asko dugu arakatzeko, baina zorionez, *Orhiko xoria, Orhin lakhet*.

## Bibliografia

- Adger, D. & G. Ramchand, 2006, «Psych nouns and predication». In *Proceedings of NELS 36*, vol. 36. UMass (Amherst): GLSA. 89-103.
- Arad, M., 1998, «Psych-notes». In J. Harris & C. Iten (arg.), *UCL Working Papers in Linguistics*. London: University College London, 203-223.
- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: UPV/EHU & Arabako Foru Aldundia.
- Belletti, A. & L. Rizzi, 1988, «Psych-verbs and  $\theta$ -theory», *Natural Language and Linguistic Theory* 6, 291-352.
- Berro, A., 2015, *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Doktore tesia, UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- & B. Fernández, 2017, «Applicatives without verbs». Eskuizkribua, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU.
- Bowers, J., 1993, «The syntax of predication», *Linguistic Inquiry* 24, 591-656.
- Etxepare, R., 2003, «Valency and argument structure in the Basque verb». In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter, 363-425.
- Euskaltzaindia, 1987, *Euskal gramatika: lehen urratsak (EGLU) II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, B. & J. Ortiz de Urbina, 2010, *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHU.
- Kratzer, A., 1996, «Severing the external argument from its verb». In J. Rooryck & L. Zaring (arg.), *Phrase Structure and the Lexicon*. Dordrecht: Kluwer, 109-138.
- Odria, A., 2017, *Differential Object Marking and datives in Basque*. Doktore tesia, UPV/EHU.
- Oihartzabal, B., 2002, «Kausazio aldizkatzea euskal aditzetan», *Lapurdum* 7, 271-294.
- Pylkkänen, L., 2008 [2002], *Introducing arguments*. Cambridge-London: MIT Press.

## Corpora

- Euskara Institutua, 2013, *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)*. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/ehg/kc/>].
- Sarasola, I., P. Salaburu & J. Landa, 2001-2007, *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>].
- , — & —, 2016, *Eguno Testuen Corpora (ETC)*. UPV/EHU. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/etc/>].

## Hiztegiak

- Mitxelena, L. & I. Sarasola, 1987-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Interneten eskuragarri: [http://www.euskaltzaindia.eu/index.php?option=com\\_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu](http://www.euskaltzaindia.eu/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu)]

- Oihartzabal, B., 2009-2013, *Nola Erran. Frantses-euskara hiztegi elektronikoa*. Euskararen Erakunde Publikoa. [Interneten eskuragarri: <http://www.nolaerran.org/>].
- Sarasola, I., 2006, *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- , 2008, *Euskararen Egungo Hiztegia (EEH)* UPV/EHU. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/eeh/>].

**Beatriz Fernández**

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak  
Unibertsitateko ibilbidea, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz  
[beatriz.fernandezf@ehu.es](mailto:beatriz.fernandezf@ehu.es)

**Ane Berro**

Hizkuntza Modernoak eta Euskal Ikasketak Saila  
Unibertsitate Etorb., 24 - 48007 Bilbo (Bizkaia)  
(00 34) 944 13 90 00 [luzapena: 2138]  
[ane.berro@deusto.es](mailto:ane.berro@deusto.es)